

BESTELAKO XEDAPENAK

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

3677

EBAZPENA, 2026ko uztailaren 22koa, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez euskal unibertsitate-sistemaren «Osasun Zientziak» arloko ikerketa-taldeak aitortzen baitira eta ikerketa-taldeen jarduerak 2026-2029 aldian bultzatzeko laguntzak esleitzen baitira.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2025eko irailaren 2ko Aginduaren bidez (2025eko irailaren 19ko EHAA, 178. zk.), euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduera 2026-2029 aldian bultzatzeko laguntzetarako deialdia egin zen.

Hautaketa Batzordeak txostena helarazi dio Zientzia Politikako zuzendariari, ebazpen-proposamena egin dezan. Ebazpen-proposamen hori 2026ko ekainaren 26an eman zen.

Aginduaren 15.1 artikulua ezartzen duenez, 2. artikuluan ezarritako ikerketa-arlo bakoitzean, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordeari dagokio prozedura ebaztea.

Horregatik, agindu horretan ezarritako prozeduraren gainerako arauak bete direnez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Euskal unibertsitate-sistemaren «Osasun Zientziak» arloko ikerketa-taldeak aitortzea 2026-2029 aldirako. Talde horien zerrenda jaso da hemen: «I. eranskina.— Egiaztatutako taldeak».

Bigarrena.— Euskal unibertsitate-sistemaren «Osasun Zientziak» arloko ikerketa-taldeen jarduerak 2026-2029 aldian bultzatzeko laguntzak ematea. Banaketa horren zerrenda jaso da hemen: «II. eranskina.— Emandako kopuruak, kontzeptuaren eta urtearen arabera».

Hirugarrena.— Kalitate-adierazleak eta emaitzen ebaluazioa ezartzea 2026-2029 aldian diruz lagundutako euskal unibertsitate-sistemaren «Osasun Zientziak» arloko ikerketa-taldeei. Adierazle horien zerrenda jaso da hemen: «III. eranskina.— Kalitate-adierazleak eta emaitzen ebaluazioa».

Laugarrena.— EAEko unibertsitate-sistemaren «Osasun Zientziak» arloko ikerketa-taldeen jarduerak 2026-2029 aldian bultzatzeko laguntzak ukatzea, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2025eko irailaren 2ko Aginduaren 13.4 artikulua babesean. Laguntza ukatu zaie-n zerrenda jaso da hemen: «IV. eranskina.— Ukatutako eskabideak».

Bosgarrena.— Laguntzaren onarpena eredu normalizatu baten bidez formalizatuko da, aginduaren 17. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Seigarrena.— Erakunde onuradunek Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan xedatutako betebeharrak bete beharko dituzte, bai eta deialdi-aginduaren 18. artikuluan adierazitakoak ere.

Zazpigarrena.— Erakunde onuradunek segimendu ekonomikoari buruzko txostenak aurkeztuko dituzte urtero, eta entregatzeko azken eguna hurrengo urteko martxoaren 31 izango da. Halaber, erakunde onuradunek 2028. eta 2030. urteetako lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen eguneratu beharko dituzte ekoizpen zientifikoaren datuak.

Zortzigarrena.— Aginduaren 17. artikuluan deskribatutako onarpen-prozedura bete ondoren, laguntzak honela ordainduko dira:

– Lehenengo urteko ordainketa bi zatitan egingo da: lehenengoa, aurrerapen gisa, urte horretarako emandako zenbatekoaren % 50ekoa. Bigarrena, gainerako % 50a, hurrengo urtean, 19. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako txosten ekonomiko eta zientifikoak aurkeztu direla egiaztatu ondoren.

– Bigarren urteko ordainketa bi zatitan egingo da: lehenengoa, aurrerapen gisa, urte horretarako emandako zenbatekoaren % 50ekoa. Bigarrena, gainerako % 50a, hurrengo urtean, 19. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako txosten ekonomiko eta zientifikoak aurkeztu direla egiaztatu ondoren. Bigarren zatia osorik ordainduko da, baldin eta erakunde onuradunak egiaztatzen badu, 2026. eta 2027. urteetarako emandako zenbatekoaren % 70, gutxienez, exekutatu dela. Bestela, justifikatutako zenbatekoarekin bat ordainduko da; ondorioz, emandako zenbatekoa aldatuko da eta aurreratutako zenbatekotik dagokiona itzuli beharko da.

– Hirugarren urtean ere berdin jokatuko da; lehenengo zatia, aurrerapen gisa, urte horretarako emandako zenbatekoaren % 50ekoa. Bigarrena, gainerako % 50a, hurrengo urtean, 19. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako txosten ekonomiko eta zientifikoak aurkeztu direla egiaztatu ondoren. Bigarren zatia osorik ordainduko da, baldin eta lehenengo hiru urteetarako emandako laguntzaren % 80, gutxienez, exekutatu bada. Bestela, justifikatutako zenbatekoarekin bat egingo da ordainketa; ondorioz, emandako zenbatekoa aldatuko da eta aurreratutako zenbatekotik dagokiona itzuli beharko da.

– Laugarren urtean, lehenengo zatia, urte horretarako emandako zenbatekoaren % 50ekoa, aurrerapen gisa ordainduko da. Bigarren zatia, hurrengo urtean, 19. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako txosten ekonomiko eta zientifikoak aurkeztu direla egiaztatu ondoren, eta 2026-2029 laurtekoari dagokion likidazioaren emaitzara egokituko da.

Dirulaguntzaren zenbatekoa abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako berme-arau-bidearen arabera bermatuko da. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen du eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen ditu.

Bederatzigarrena.— Erakunde onuradunak Aginduaren 21. artikuluan adierazitako kasuren batean badaude, ezin izango dute laguntza ordaintzeko eskatu eta bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatzea, bai eta laguntza ordaindu zenetik aplikatu beharreko legezko interesak eskatzea ere.

Hamargarrena.— Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 22a.

Zientzia eta Berrikuntzako sailburordea,
ADOLFO MORAIS EZQUERRO.

I. ERANSKINA
EGIAZTATUTAKO TALDEAK. OSASUN ZIENTZIAK

Eskaeraren kodea	Unibertsitatea	Kat.	Guztira (Gehienez 100 p)	Oinarrizko irizpideak (Gehienez 50 p)	Finantzaketa eta transferentzia (Gehienez 20 p)	Helburuak eta lan-plana (Gehienez 20 p)	Irizpide osagarriak (Gehienez 10 p)	Generoen arteko oreka (Gehienez 4 p)	RIS3 eta berrikuntzaren itsasargiak (Gehienez 2 p)
IT2024-26	EHU	A	92,40	47,00	19,00	16,70	5,70	2,00	2,00
IT1920-26	EHU	A	91,80	45,00	20,00	16,30	5,50	3,00	2,00
IT2027-26	EHU	A	91,30	46,00	18,00	16,00	5,30	4,00	2,00
IT1966-26	EHU	A	89,70	42,80	19,80	16,10	5,00	4,00	2,00
IT1932-26	EHU	A	87,60	46,00	16,80	16,00	4,80	2,00	2,00
IT2041-26	EHU	A	87,30	44,70	16,00	17,00	5,60	2,00	2,00
IT1917-26	EHU	A	86,50	44,00	20,00	13,50	5,00	2,00	2,00
IT2111-26	EHU	A	86,00	42,90	16,30	15,40	5,40	4,00	2,00
IT2071-26	EHU	A	85,90	45,00	17,00	14,90	5,00	2,00	2,00
IT2076-26	EHU	A	84,70	43,40	16,90	15,60	4,80	2,00	2,00
IT1886-26	EHU	A	84,20	39,80	18,00	16,40	5,00	3,00	2,00
IT2010-26	EHU	A	83,70	39,40	18,00	15,70	5,60	3,00	2,00
IT1835-26	EHU	A	83,55	42,50	19,00	14,05	4,00	2,00	2,00
IT1984-26	EHU	A	81,50	44,00	16,00	12,00	4,50	3,00	2,00
IT1843-26	EHU	A	80,90	42,00	15,80	15,40	4,70	1,00	2,00
IT1998-26	EHU	A	79,80	39,70	15,90	15,70	4,00	3,00	1,50
IT1989-26	EHU	A	79,70	42,00	15,00	13,40	5,30	2,00	2,00
IT2023-26	EHU	A	79,60	42,00	16,80	12,40	4,40	2,00	2,00
IT1983-26	EHU	A	79,30	38,50	16,00	16,80	4,00	2,00	2,00
IT1957-26	EHU	A	78,70	37,00	18,40	15,00	4,80	2,00	1,50
IT1825-26	EHU	A	77,00	42,50	11,00	15,00	4,50	2,00	2,00
IT1950-26	EHU	A	76,60	37,00	14,00	14,60	5,00	4,00	2,00
IT2022-26	EHU	B	74,20	36,20	15,50	14,50	4,00	2,00	2,00
IT1854-26	EHU	B	73,50	34,00	15,90	15,70	4,40	2,00	1,50
IT2037-26	EHU	B	72,40	40,30	14,00	9,10	4,00	3,00	2,00
IT1987-26	EHU	B	72,30	34,00	13,80	16,00	4,50	2,00	2,00
IT1900-26	UD	B	68,80	35,20	14,80	13,20	3,60	2,00	0,00
IT1868-26	UD	B	61,20	30,20	9,00	13,50	3,50	3,00	2,00
IT2019-26	EHU	B	54,30	30,10	6,00	10,00	4,20	2,00	2,00

II. ERANSKINA
EMANDAKO KOPURUAK, KONTZEPTUAREN ETA URTEAREN ARABERA. OSASUN ZIENTZIAK

Eskaeraren kodea	Unibertsitatea	Kontzeptua	2026	2027	2028	2029	Guztira
IT2111-26	EHU	[1]	0	22.500	22.500	0	45.000
		[2]	4.879	10.121	0	0	15.000
		[3]	27.232	28.848	34.299	42.621	133.000
		Guztira	32.111	61.469	56.799	42.621	193.000
IT2076-26	EHU	[1]	28.606	41.362	49.087	60.945	180.000
		[2]	20.000	50.000	0	0	70.000
		[3]	68.651	70.901	73.624	71.824	285.000
		Guztira	117.257	162.263	122.711	132.769	535.000
IT2071-26	EHU	[1]	28.242	29.167	34.614	42.977	135.000
		[2]	9.696	11.684	13.865	14.755	50.000
		[3]	47.697	49.260	58.459	72.584	228.000
		Guztira	85.635	90.111	106.938	130.316	413.000
IT2041-26	EHU	[1]	0	22.500	22.500	0	45.000
		[2]	15.000	0	0	0	15.000
		[3]	32.759	33.833	59.170	26.238	152.000
		Guztira	47.759	56.333	81.670	26.238	212.000
IT2027-26	EHU	[1]	40.793	42.131	49.998	62.078	195.000
		[2]	15.785	22.308	31.565	30.342	100.000
		[3]	36.952	70.340	83.475	56.233	247.000
		Guztira	93.530	134.779	165.038	148.653	542.000
IT2024-26	EHU	[1]	36.652	43.262	51.341	63.745	195.000
		[2]	20.920	21.605	25.640	31.835	100.000
		[3]	47.697	49.260	58.459	72.584	228.000
		Guztira	105.269	114.127	135.440	168.164	523.000
IT2023-26	EHU	[1]	5.739	6.257	7.815	10.189	30.000
		[2]	1.578	1.630	1.612	1.680	6.500
		[3]	27.823	28.735	34.101	42.341	133.000
		Guztira	35.140	36.622	43.528	54.210	169.500

2026ko abuztuaren 24a, astelehena

Eskaeraren kodea	Unibertsitatea	Kontzeptua	2026	2027	2028	2029	Guztira
IT2010-26	EHU	[1]	37.655	38.890	46.152	57.303	180.000
		[2]	35.000	35.000	0	0	70.000
		[3]	39.329	40.618	48.203	59.850	188.000
		Guztira	111.984	114.508	94.355	117.153	438.000
IT1998-26	EHU	[1]	16.298	37.182	40.344	26.176	120.000
		[2]	13.386	987	1.172	1.455	17.000
		[3]	63.596	65.680	77.946	96.778	304.000
		Guztira	93.280	103.849	119.462	124.409	441.000
IT1989-26	EHU	[1]	24.126	25.604	31.198	39.072	120.000
		[2]	15.436	11.691	6.307	1.566	35.000
		[3]	53.080	60.910	72.285	98.725	285.000
		Guztira	92.642	98.205	109.790	139.363	440.000
IT1984-26	EHU	[1]	28.242	29.167	34.614	42.977	135.000
		[2]	10.460	10.803	12.820	15.917	50.000
		[3]	47.697	49.260	58.459	72.584	228.000
		Guztira	86.399	89.230	105.893	131.478	413.000
IT1983-26	EHU	[1]	5.683	6.072	7.807	10.438	30.000
		[2]	1.238	1.278	2.226	1.758	6.500
		[3]	21.440	22.143	35.038	54.379	133.000
		Guztira	28.361	29.493	45.071	66.575	169.500
IT1966-26	EHU	[1]	28.242	29.167	34.614	42.977	135.000
		[2]	25.000	0	25.000	0	50.000
		[3]	51.672	53.365	63.331	78.632	247.000
		Guztira	104.914	82.532	122.945	121.609	432.000
IT1957-26	EHU	[1]	0	15.000	15.000	0	30.000
		[2]	0	0	0	0	0
		[3]	105.159	7.607	9.027	11.207	133.000
		Guztira	105.159	22.607	24.027	11.207	163.000
IT1950-26	EHU	[1]	8.138	8.404	9.974	12.384	38.900
		[2]	4.631	4.631	0	0	9.262
		[3]	28.675	29.616	35.145	43.638	137.074
		Guztira	41.444	42.651	45.119	56.022	185.236

Eskaeraren kodea	Unibertsitatea	Kontzeptua	2026	2027	2028	2029	Guztira
IT1932-26	EHU	[1]	8.879	9.540	11.761	14.820	45.000
		[2]	4.342	3.363	3.991	3.304	15.000
		[3]	31.798	32.840	38.973	48.389	152.000
		Guztira	45.019	45.743	54.725	66.513	212.000
IT1920-26	EHU	[1]	20.797	73.888	87.687	69.628	252.000
		[2]	23.296	34.752	25.379	27.573	111.000
		[3]	63.596	65.680	77.946	96.778	304.000
		Guztira	107.689	174.320	191.012	193.979	667.000
IT1917-26	EHU	[1]	48.001	49.575	36.770	45.654	180.000
		[2]	23.000	28.000	19.000	0	70.000
		[3]	79.495	82.100	97.432	120.973	380.000
		Guztira	150.496	159.675	153.202	166.627	630.000
IT1886-26	EHU	[1]	38.077	38.077	13.846	0	90.000
		[2]	6.276	6.482	7.692	9.550	30.000
		[3]	43.722	45.155	53.588	66.535	209.000
		Guztira	88.075	89.714	75.126	76.085	329.000
IT1843-26	EHU	[1]	18.828	19.445	23.076	28.651	90.000
		[2]	14.500	0	0	0	14.500
		[3]	35.773	36.945	43.844	54.438	171.000
		Guztira	69.101	56.390	66.920	83.089	275.500
IT1835-26	EHU	[1]	28.242	29.167	34.614	42.977	135.000
		[2]	10.460	10.803	12.820	15.917	50.000
		[3]	51.672	53.365	63.331	78.632	247.000
		Guztira	90.374	93.335	110.765	137.526	432.000
IT1825-26	EHU	[1]	11.252	28.728	35.114	44.906	120.000
		[2]	20.164	0	0	0	20.164
		[3]	39.901	37.546	28.365	24.288	130.100
		Guztira	71.317	66.274	63.479	69.194	270.264

Kontzeptuen legenda:
[1] Ikertzaileak edo laguntzaileak kontratatzea.
[2] Ekipamendu zientifiko edo bibliografiko txikia erostea.
[3] Beharrezko beste gastu batzuk.

III. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO IKERKETA-TALDE BAKOITZAREN KALITATE-ADIERAZLEAK ETA
EMAITZEN EBALUAZIOA 2026-2029 ALDIRAKO. OSASUN ZIENTZIAK

Eskaeraren kodea	Unibertsitatea	1	2	3	4	5
IT1825-26	EHU	60	10	25	25	18
IT1835-26	EHU	50	8	20	20	14
IT1843-26	EHU	40	6	15	15	11
IT1886-26	EHU	40	6	15	15	11
IT1917-26	EHU	60	10	25	25	18
IT1920-26	EHU	60	10	25	25	18
IT1932-26	EHU	30	4	10	10	7
IT1950-26	EHU	40	6	15	15	11
IT1957-26	EHU	30	4	10	10	7
IT1966-26	EHU	50	8	20	20	14
IT1983-26	EHU	30	4	10	10	7
IT1984-26	EHU	50	8	20	20	14
IT1989-26	EHU	60	10	25	25	18
IT1998-26	EHU	60	10	25	25	18
IT2010-26	EHU	60	10	25	25	18
IT2023-26	EHU	30	4	10	10	7
IT2024-26	EHU	50	8	20	20	14
IT2027-26	EHU	50	8	20	20	14
IT2041-26	EHU	30	4	10	10	7
IT2071-26	EHU	50	8	20	20	14
IT2076-26	EHU	60	10	25	25	18
IT2111-26	EHU	30	4	10	10	7

Adierazleen legenda:

[1] Ekoizpen zientifikoa: argitalpenak.

[2] Prestakuntza-gaitasuna: defendatutako doktorego-tesiak.

[3] Ikertzaileen kontratuak.

[4] Kanpo-finantzaketa.

[5] Norgehiagokako proiektuak.

IV. ERANSKINA
UKATUTAKO ESKABIDEAK. OSASUN ZIENTZIAK

Eskaeraren kodea	Unibertsitatea	Guztira (Gehienez 100 p)	Oinarrizko irizpideak (Gehienez 50 p)	Finantzaketa eta transferentzia (Gehienez 20 p)	Helburuak eta lan-plana (Gehienez 20 p)	Irizpide osagarriak (Gehienez 10 p)	Generoen arteko oreka (Gehienez 4 p)	RIS3 eta berrikuntzaren itsasargiak (Gehienez 2 p)	Arrazoia
IT1935-26	UD	58,00	27,70	9,50	12,00	3,80	3,00	2,00	[1]
IT2036-26	EHU	45,00	24,00	3,50	10,50	3,00	2,00	2,00	[2]

Arrazoiien legenda:
[1] Gehienez lor daitekeen puntuazioaren (50 puntu) % 60tik beherako puntuazioa (30 puntu) oinarrizko irizpideen atalean.
[2] 50 puntu baino gutxiago eskabide osoan.